

Bilbon, 1995eko ekainaren 30ean

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, P.
 Diharce, X.
 Goenaga, P.
 Irigoyen, A.
 Kintana, X.
 Krutwig, F.
 Oihartzabal, B.
 Ondarra, P.
 Salaburu, P.
 San Martin, J.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea

Bilbon, egoitzan, 1995eko ekainaren 30ean, goizeko 10etan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenen aipatzen diren ki-deak han zirela. Ezin etorria adierazi dute J.L. Davant, E. Larre, Tx. Peillen eta I. Sarasolak. M. Azkarate, P. Ondarra eta J.M. Satrustegi ez dira arratsaldean izan.

Agiria

Maiatzeko agiriak onartu dira, zenbait zuzenketa egin ondoren.

Frantziako Errepublikako departamendu eta herrialdeen izenak

Frantziako Errepublikako departamendu eta herrialdeen izenak deritzan erabaki proposamena, Onomastika batzordeak ondu eta Euskara Batuko batzordeak aurkeztua, izan da egun lehenbiziko aztergaia, maiatzeko batzarrean ezin izan baitzen bukatu. Hiriburuak ere ikertu dira, Heletako batzarrean bezala.

Hasierako proposamenetik zenbait aldaketa egin dira batzarrean. Besteak beste, *Paue* izango da euskarazko forma arautua, *Pabe* eta *Paube*-ren kaltetan. Halaber, ekarri diren lekukotasunak (Euskara Batuko batzordearen eta A. Irigoyenen txostenak) kontuan harturik *Pirinio Atlantikoak* erabaki da, ez *Atlantiar*. Gainerakoan, departamenduen izen gehienetan frantsesez duten forma onartu da: *Meuse*, *Alpes-de-Haut-Provence*, *Rhône* eta abar. *Estrasburgo* formaren ondoan *Strasbourg* ere zilegi izango da; era berean, *Edinburgh*, *Fribourg*, *Hamburg*, *Luxembourg* eta *Salzburg* forma jatorrizkoak onartzen dira, euskal itxuradunen ondoan (*Edinburgo* eta abar). *Burgu* eta *burgo* hitzak mintzagai izan dira, puntu honi datxekola.

Aldiz, *Tolosa* erabaki da forma bakartzat, behar denean *Okzitaniako* ezarriarik. *Auch*-en ondoan *Auski* ere erabili ahalko da, idazlea edo esataria antzinateaz ari denean.

P. Goenagaren galderari erantzunez, erabaki hau argitaratzerakoan, irizpide-orri bat erantsiko dela esan du P. Salaburuk, izenon deklinabideaz sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

Ongi etorri

Inolako aldaketarik gabe onartu da txosten hau. Azken urteotan zabaldu den *Ongi etorria(k)* forma baztertzeko asmoz egin da. Zer esanik ez, *Ongi etorria eman digute, Zarela ongi etorria!* edota *Ongi etorriak izango dira* perpausak guztiz zuzenak dira.

Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia

Zazpi orritako txostena, Bost liberatako aldizkaria eta antzeko perpausak arrunt hedatu dira orobat azken urteotan. Areago, askok erabilera hori bakarrik zuzenetsi dute. Gauzak beren neurrira itzultzeko egin da txostena, idazle gehienek erabili duten *hiru laguneko taldea, bost urteko haurra* eta besteren egokitasuna adieraziz.

A. Irigoyenek eta P. Goenagak zalantzak agertu dituzte arazo honi buruz, nahiz funtsean testua onartu. Luzaz eztabaidatu ondoren aho batez onetsi da erabakia, hots, nongo galderari erantzuten ez zaionean: *hiru etxetako haurrak, hiru etxeetako haurrak, *hiru etxeko haurrak*, ez dela *-(e)tako* behar. Guztiz zilegi dira. hortaz, tradizioak erakutsi bezala, *adineko pertsona, hiru kilometroko bidea, sei asteo egonaldia* eta abar.

Orduak nola esan

Txosten honi dagokiola, *ordu* (eta *oren*) *bata, ordu biak, ordu batean, hiruretan* eta gisako esapideetan ez da zalantzarik agertu, salbu zenbait euskaltzainek proposaturiko *ordu batean/ordu batetan* bereizketa, ontzat eman ez dena. Laurdena eta erdia adierazteaz, P. Goenagak oroitarazi du *eta* osorik idaztea eskatu zuela E. Knörrek Leioako Biltzarrean. Sintagma nola eman eztabaidatu da: *ordu bat eta laurdena, ordu bata eta laurden* eta antzekoak. Azkenean hau erabaki da: *ordu bat eta erdiak, hiru eta erdiak, ordu bat eta laurdenak* eta abar. Besteak honela hobetsi dira: *bostak laurden gutxi(ago), hamarrek hamar gutxi(ago), hirurak eta hemezortzian* eta abar.

Zifrak ematerakoan, inguruko hizkuntzetan bezala, 00:12, 14:10 eta antzekoak erabiliko dira; deklinatzean ordua pluralean ezarriko da eta minutuak singularrean: *15:03ean*, adibidez, nahiz irakurtzeko *hirurak eta hiruan* esan. Horrekin batera zilegi izango da egitarau, kartel eta horrelakoetan erdiko bidea hartzea: *arratsaldeko Setan, gaueko 12ak arte*.

Azken ordukoak

J.M. Satrustegik, arratsaldeko batzarrean ezin geldituz, aditzera eman du *Errenteria* izena dela eta K. Mitxelena alargunak agertu dion kezka. Izan ere, arazoa alderdikeriaz azaltzen dute zenbaitek, Mitxelena, Bozas Urrutiaren eta beste batzuen izena erabiliaz.

E. Knörrek Onomastika batzordeak puntu honen gainean iaztik egin duena azaldu du. Batzordeak ekainaren 23ko bilkuran horrela erabakirik, izkribu bat prestatuko da,

Erreneria izenaren egokitasuna aldeztuz. Zirriborroa zenbait batzordekidek aztertu ondoren, herriko *Oarso* aldizkarira bidaliko da. Ildo beretik, J. San Martinek *Egan* aldizkarian berak idatzitako artikulua aipatu du.

Hurrengo erabaki proposamenak

Arratsaldeko lehen puntu gisa, *Data nola adierazi. Munduko estatu izenak, hiriburuak eta jentilizioak, Zenbait aditzen erregimena* eta *Topiko bihurtu* izeneko txostenak aurkeztu dira. Ohi bezala, idatziz igorriko dira oharrak hilaren 20a baino lehen.

Aldiz, Hiztegi Batuko A letra ezin izan da aurkeztu. Uztaileko batzarrean ekarriko da.

Batzordeak

Ahoskera azpibatzailearen osakera uztaileko batzarrean egingo dela esan du J. Haritschelhar euskaltzainburuak. Ekonomi azpibatzaile horrela osatzea onartu da: Jon Castañares, Alberto Elorriaga, Sebastian García Trujillo eta Jose M.^a Makua Goienetxe. Gainera, beste zenbait aholkulari izango ditu azpibatzaile honek.

Eskuarteak

X. Diharceren gutuna irakurri du J. Haritschelharrek. Euskaltzaindiaren Erregelaren 39. artikulua dioena kontuan hartuz, euskaltzain oso izatea utzi nahi du, gazteago baten faboretan.

Euskaltzainburuak esan du lehen aldikoz gertatzen dela kasu hau Erregelaren testu berria onartzu gero, eta hirugarrenez egiten duela Diharce jaunak eskari bera. Artikulua irakurri du eta egutegia eta prozedura azaldu. X. Kintanak goraipatu du X. Diharceren jokabide jatorra. Hutsune larria litzateke, erantsi du, eta eskatu du X. Diharcek, bere tokia utzi arren, ahal dela, ateak zabalik izan ditzan, beti ere norberaren nahia eta iritzia errespetatuz. J. A. Aranak azaldu du 1920an jaioa dela X. Diharce. Euskaltzainetan zaharrena da, beraz, adinez. 1962an izendatu zen euskaltzain.

Diharce jaunak esan du ez duela hiru hilabeteko epea behar bere arrazoiak azaltzeko; adina eta gazteagoak Euskaltzaindian sartzea dira arrazoiak.

P. Altunaren iritziz, Euskaltzaindiak esan dezake arrazoi horiek ez direla pisuzkoak. L. Villasanterentzat, urrats larriaren aurrean aurkitzen da Akademia. Erregelak berriztatzean erabaki zena Arautegiaren aurka ez ote doan galdetu du, ezen betiko hautatu dira euskaltzainak. F. Krutwigen ustez, betikoa da euskaltzaintasuna agian.

Euskaltzainburuak bozketa egin eta horrela onartu zela erantzun du, eta ohorezkoetan bi kategoria izango zirela, hots, euskaltzain ohiak eta gainerakoak, oroitarazi.

Iritziak entzun ondoren, X. Iratzederrek erretiratu du bere eskaria.

Kultura ministerioa

Espainiako Kultura ministerioak urteoro antolatzen dituen sarietarako Euskaltzaindiaren ordezkariak proposatu ditu Zuzendaritzak. Aho batez onartu dute batzartuek proposamena. Honako hau da:

Espainako Letren saria: Juan San Martin.

Poesia saria: Jon Kortazar.

Kontaera saria: Ibon Sarasola.

Saiakera saria: Andolin Eguzkitza.

Antzerki saria: Patri Urkizu.

Haur eta gazte literatura saria: Pakita Arregi.

Itzulpen saria: Xabier Mendiguren Bereziartu.

Kudeatzailea

Euskaltzaindiaren kudeatzaileaz Zuzendaritzak egin duen erabaki proposamena irakurri du J. Haritschelharrek, J.L. Lizundia idazkariordeak batzar gela utzi ondoren. Izkribuan idazkariordea dena kudeatzailea izatea proposatzen da. Euskaltzainburuak hitz batzuk erantsi ditu, testua hobeki azaltzeko.

P. Salaburuk galdetu du proposamena ontzat hartuz gero zertan aldatzen diren gauzak. Bestalde, langile guztien eginkizunak ezagutzeko nahia agertu du. J. Haritschelharrek erantzun du aurrerantzean lotura gehiago izango duela kudeatzaileak euskaltzainburuarekin, eta langileen eginkizunei buruzko txostena hurrengo batzarrean ekar daitekeela. Bitartean, gehitu du, aldaketak izan dira barnean, Euskaltzaindiaren giza-baliabideei etekin gehiago ateratzeko.

P. Goenagaren iritziz, agian idazkariordearen alor akademikoa eta kudeatzaileari dagokiona ez dira erraz ezkontzen. J. San Martinek, berriz, esan du sei urte dela horrelako eginkizunaren beharra ikusi zela.

Gaia uzaileko batzarrean erabakiko da.

Diruzainak Akademiak behar dituen maileguak bideratzeko ahala eskatu du. Ontzat hartu da eskaria. P. Salaburuk galdetu du ez denentz hobe kontu guztiak banku bakar batean izatea. Ekonomi azpibatzaordeak aztertuko du puntu hori.

Eta arratsaldeko bost eta erdiak direla, bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idezkaria